



Enpatia II • HENRIETTE BOUTENS VAN UDEN

- Brontzezko eskultura
- Liburutegi nagusiko sarreran dago

«Obrak erakutsi nahi ditu, bere bolumen positibo eta negatiboen bitartez, bizitzak berak dituen argi-izunak. Obraren eta norberaren bizitzaren arteko enpatia sortzea nahi da»

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA

Unibertsitatea arte galeria

Arrosadiako campusean Euskal Herriko 18 artistaren beste hainbeste lan daude ikusgai


Inigo Olabarri • Iruñea

POESIAREN BRANKA-JOAN BROSSARI OMENALDIA izena du duela gutxi Ricardo Ugarte Zubiarrainek Nafarroako Unibertsitate Publikoari (NUP) utzi dion eskulturak. Orain 18 daude NUPen barreiatuta.

Jorge Oteizaren *Diedroen konjuntziozko partitura berezia* lana paratu zen lehenik Arrosadiako campusean. Orduz geroztik beste hamazazpi artistak lan bana jarri dute: Soledad Aragonek, Faustino Aizkorrek, Henriette Boutens Van Uden-ek, Carlos Zirizak, Antonio Eslabak, Blanca Garnicak, Juan Gorritik, Ricardo Laspideak, Jorge Martinez Uhartek, Javier Murok, Clemente Otxoak, John Otazuk, Dora Salazarrek, Josetxo Santosek, Jose Ulibarrenak, Xabier Lakak eta, arestian aipatu bezala, Ricardo Ugarte Zubiarrainek.

Unibertsitatearen X. urteurrena zela eta, eskultore zenbaiti gutuna idatzi zien Pepe Blascok, NUPeko kultur koordinatzaileak. «Hasiera batean lan batzuk jarri eta, denborarekin, ordezkatzera zen asmoa. Baina artista batzuek campuserako egin dituzte beren beregi eta hemen uztea erabaki dute». Ekimenak jarraipena izango du, Pepe Blascoren berarena izango baita hurrengo lana.

Ondoren, artelan horietako batzuren argazkiak eta azalpenak daude, Blascoren edo artisten beraien hitzetan.



Pentsamenduen tokia • CARLOS ZIRIZA

- Berunezko eskultura
- Administrazio eta kudeaketa eraikinaren aurrean dago

«Irudi honek betiko galdera bat islatzen du. Hormigoizko oinarria, altzairuzko egitura, belarrezko ohandua eta eta zinez zer dakigun etengabe galdetzen ari den irudia»



Teobaldo • ANTONIO ESLABA

- Harri eta burdinazko eskultura
- Liburutegi Nagusiko irakurgelara dago

«Irudia mitoetan kokatu behar da. Haren hizkuntza hutsuneetan eta sintesi sakoneko bolumenetan kokatu behar da. Jarrera komunikatzaile eta bideratuak erritmo jakin bati jarraitzen dio»